23. alea
2003-Azaroa

# HEZKIDETZAN Pausoz pauso

# Paso a paso En la COEDUCACIÓN






2. eta 3. zikloak

## IDENTITATEA

### Kaixo lagunak!

Eskuartean duzuen hau HEZKIDETZARI buruzko hainbat aspektu landu nahi duen boletina da. Arrasateko ama, osaba, aita, amama, haur..., hau da, pertsona orori zuzendutako boletina. Pertsonen arteko berdintasunean oinarritutako baloreak ikasi eta garatzen lagunduko diguna, hain zuzen ere.







### Kaixo lagunak!

Tienes en tus manos un boletín que pretende trabajar espectos COEDUCATIVOS. Un boletín que va dirigido a madres, padres, tíos, abuelas... de Arrasate. En definitiva un boletín que ayudará a desarrollar y aprender valores de igualdad entre todas las personas.

# Idatzi pertsona bakoitzarekin identifikatzen dituzun ekintza, gauza...

## Escribe alguna actividad, cosa... que identifiques con cada persona

1






Idatzi duzunaren arabera nolako definizioak egingo zenituzke neskei eta mutilei buruz?
Basándote en lo que has escrito, ¿qué definiciones harías de lo que es ser chico o de lo que es ser chica?

------------------------------------------------------------

------------------------------------------------------------

------------------------------------------------------------

------------------------------------------------------------

------------------------------------------------------------

------------------------------------------------------------

2

Marraz ezazu zure aurpegia, dituzun ezaugarriak nabarmenduz. Zure erretratua eta etxekoenak, inork aurretik ikusi gabe, zure gelako paretan itsatsi eta bakoitza nor den asmatu beharko duzue.

Dibuja tu cara destacando tus rasgos más característicos. Cuélgala en la pared de tu cuarto, junto a la de tu familia o amistades. ¡A ver si adivináis quién es quién!

# MADDI eta UNAI



Maddi 7 urteko neskatila da eta bere lagun onenak Unai du izena, oso ondo konpontzen dira elkarrekin.



Gela berean ikasten dute eta askotan eskolatik irten eta elkarrekin egiten dituzte etxekolanak.



Maddik ez du gogoko panpinekin, andereñotara... jolastea, berari kirola egitea gustatzen zaio baita Unairi ere.



Egun batean, irakasleak taldeko lan bat egitea proposatzen die, bi talde sortu behar dira gelan, beraiek eratu behar dituzte taldeak libreki.

Eta bapatean:




Neskak talde bat osatzen dute eta mutilek beste bat. Maddik Unaikin nahi du taldea osatu baina bera neska izanik, nesken taldera hurbildu behar duela sentitzen du, nahiz eta bere nahi eta desioak Unaiekin taldea osatzea litzateke.

☆ **Zer iruditzen zaizu gertatutakoa? Ezagutzen duzu horrelako kasuren bat? Komentatu, eztabaidatu eta ideiak elkarjarri.**

☆ **¿Qué te parece lo ocurrido? ¿Conoces algun caso parecido? Comentar, debatir e interponer ideas en común.**

# Gurasoen txokoa

## Identitatea

### Zer da identitatea?

*Norberak daukan izatearen kontzientzia. Galdera honen erantzuna, NOR NAIZ NI?.* ***(Bigarren ariketan jakingo dugu gure seme-alabek beraien buruaz pentsatzen dutena)***

### Nola eraikitzen da identitatea?

*Inguruak nitaz bidaltzen didan informazioa eta nik nire buruaz pentsatzen dudana lotuz. Nork bere buruaz ezagutza osoa izanik eta esparru hauek sartzen direlarik: gorputza, afektibitatea, ezagutza eta soziala.*

### Zer da sexu identitatea?

*Norberak bere sexuaren kontzientzia izatea, hau da, arra ala emea izatea.*

### Zer da genero identitatea?

*Norberaren gizartean sexuaren arabera jasotzen duen informazioagatik gizona edo emakumea izatearen kontzientzia.*

### Nondik dator informazioa genero identitatea sortzeko?

*Gizartean dauden estereotipoetatik; familiaren baloreetatik; modan dauden ereduetatik; liburu eta komunikabideetan erakusten diren bizimoduetatik; hezkuntzan transmititzen dituen edukietatik; …* ***(Lehenengo ariketan ikusiko dugu gure seme-alabek genero identitatea nola daukaten barneratuta****).*

### Zer da hezkidetza?

*Diskriminazio ezan oinarritutako hezkuntza*
*Pertsonengan eta ez generoetan oinarritutako hezkuntza*
*Gaurko rol eta estereotipo baztertzaileak apurtzen dituen hezkuntza*
*Sexuen gainetik gure gaitasunak garatzen laguntzen duen hezkuntza*
*Identitate zabalak eraikitzeko bideak errazten ditueen henkuntza*
*Etorkizun alternatiboa lortu nahi duen hezkuntza, non neska eta mutilek aukera berdinak dituzten*

### ¿Que es la identidad?

*La conciencia que cada cual tiene de sí, es decir, la respuesta a esta pregunta, ¿ Quién soy yo? (en el segundo ejercicio podemos observar como se ven nuestros hijos e hijas)*

### ¿Cómo se construye?

*Asociando la información que me llega del exterior y cómo me voy viendo, creando un conocimiento completo sobre mi y teniendo en cuenta aspectos del cuerpo, la afectividad, el conocimiento y lo social.*

### ¿Qué es la identidad de sexo?

*La conciencia que cada cual tiene de su sexo, macho o hembra.*

### ¿Qué es la identidad de género?

*La conciencia que vamos construyendo de ser hombre o mujer según información que recibimos de nuestra sociedad sobre lo que es ser una cosa u otra.*

### ¿De dónde recibimos la información para desarrollar la identidad de género?

*De los estereotipos que hay en la sociedad, de los valores de la familia, de los modelos que estan de moda, de los estilos de vidad que aparecen en libros y medios de comunicación, de los contenidos que se trasmiten en la educación... (En el primer ejercicio veremos como tienen interiorizada la identidad de género)*

### ¿Qué es la Coeducación?

*Educación basada en la no discriminación*
*Una educación basada en las personas y no en el género de éstas.*
*Una educación que rompa con los roles y estereotipos discriminatorios*
*Una educación para desarrollar nuestras capacidades al margen del sexo.*
*Una educación facilitadora de identidades no determinadas*
*Una educación que busque lograr un futuro alternativo donde niñas y niños tengan las mismas oportunidades*

Honen inguruan zerbait gehiago nahi izatekotan, deiguzu
*Si quieres saber algo más sobre esto, llámanos:*

- Urtxintxa Eskola: Tel: 94 432 04 45
  E-mail: urtxin@euskalnet.net


Egileak:
Oihana Aranburu,
Ursuia Etxebarria.



Koordinatzailea
Bizkaiko Urtxintxa Eskola

Babezlea:
ARRASATEKO UDALA